

# Pedagogiako gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

DONOSTIA | SAN SEBASTIAN



## V. Módulua

# Esku-Hartze Pedagogikoa

Moduluaren gida

## AURKIBIDEA

1. Edukiaren deskribapena .....	3
2. V. Moduluaren gaitasunak.....	3
3. Modulua osatzen duten gaiak.....	3
4. V. Modulua artikulatzen duen logika .....	5
5. Ikaskuntza emaitzak gaitasunen arabera .....	5
6. Irakaskuntza koordinazioa .....	6
7. Irakasgaiek DILANari egiten dizkioten ekarpenak.....	7
7.1. Diagnostika Hezkuntzan .....	7
7.2. Ezintasuna eta Inklusioa .....	7
7.3. Taldean Esku Hartzeko Estrategiak .....	7
7.4. Prestatzaileen prestakuntza .....	7
7.5. Esku hartzeko ereduak .....	8
7.6. Euskararen Arauak eta Erabilerak .....	8
8. Moduluko diziplinarteko lana (DILAN) .....	9
8.1 Zereginaren planteamendua.....	9
8.2 Zereginaren garapenerako lan-prozedura .....	9
8.3 Txostenaren egitura.....	13
8.4 Bertaratze saioak: Egutegia.....	14
9. Ordu eta kreditu kopurua .....	16
10. Ebaluazio sistema .....	16
10.1 Ebaluazio irizpideak .....	16
Ahozko aurkezpena .....	16
Txosten idatzia .....	17
10.2 Kalifikazio sistema .....	18
11. Azken froga eskatzen duten ikasleentzako oharra.....	20
Eranskinak.....	21

## 1. Edukiaren deskribapena

*Iraupena eta denboran kokatzea ikasketa planaren barnean:*

30 ECTS, nahitaezko bost irakasgairi dagozkienak, Hirugarren Maila, Lehen lauhilekoa.

*Sartzeko aurretiko baldintzak:*

Titulazioan eta indarrean dagoen araudian finkaturikoak.

Unibertsitateari eskaera egingo zaio moduluen eta ECTS kredituen sistema honen araberako araudiak gara ditzan, ikasleen eskubideak bermatuko direla eta modulu egiturak behar duen barne batasunari eutsiko zaiola ziurtatzeko, lan globalizatzaile baten inguruan antolatutako diziplinarteko izaerari eutsiz betiere.

## 2. V. Moduluaren gaitasunak

- G1. Hezkuntza eta prestakuntza egoerak diagnostikatzea, esku-hartze pedagogikoaegin baino lehen.
- G2. Hezkuntzan esku hartzeko ereduak ezaugarriak eta horiek praktikan dituzten inplikazioak ezagutzea.
- G3. Prestakuntzako eta metodologiako hainbat estrategia erabiltzea, hezkuntza-eragileen artean esku hartzeko.
- G4. Profesionalentzat prestakuntza proposamenak diseinatzea, esku hartzeko testuinguruei egokituak.
- G5. Erabaki komunak hartzea errazten duten esku-hartze pedagogikoen proposamenak oinarritzea eta arrazoitzea, bai ahoz bai idatziz.

### 2.1. Iraunkortasuneko gaitasunak (Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko):

- G1. IRAUN 1. Ezagutzaren testuinguru kritikoa ezartzea, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arazoekiko, tokiko arazoekiko eta/edo arazo globalekiko loturak ezarriz.
- G2. IRAUN 2. Baliabideen erabilera iraunkorra eta natura- eta gizarte-ingurunearen gaineko inpaktu negatiboen prebentzioa.
- G3. IRAUN 3. Iraunkortasuna sustatzen duten prozesu komunitarioetan parte hartzea.
- G4. IRAUN 4. Iraunkortasunaren balioekin lotutako printzipio etikoak aplikatzea portaera pertsonaletan eta profesioaletan

## 3. V. Moduluaosatzen duten gaiak

- Diagnosia Hezkuntzan
- Ezintasuna eta inklusioa

- Taldean Esku Hartzeko Estrategiak
- Prestatzaileen prestakuntza
- Esku hartzeko ereduak
- Euskararen Arauak eta Erabilerak (hautazkoa)

## 4. Modulua artikulatzen duen logika

Graduko 5.a da modulu hau eta hirugarren mailari dagokio.

Hainbat gai landuko dira gaitasunak garatzeko, eta horiei esker egin ahal izango dira egoeraren diagnosia, errealitatearen azterketa esku hartzeko hainbat eredutan oinarrituta, prestakuntza prozesuen artikulazioa, taldeko eta ezintasunen alorreko esku-hartzeak gizarteratze irizpideei jarraiki, testuinguruetan eta era askotako kolektiboekin kalitatea eta zuzentasuna lortzeko prozesuak. Hori guztia Garapen Iraunkorreko Helburuetan (ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.) oinarrituko da.

## 5. Ikaskuntza emaitzak gaitasunen arabera

### 5.1. Ikaskuntza emaitzak moduluaren gaitasunetan oinarrituta.

- IE1.M. Hezkuntza egoera bat aztertzea diagnosiaren faseetan oinarrituta, hobera egiteko hezkuntza eta prestakuntza proposamenak eginez.
- IE2.M. Esku-hartze pedagogikorako plana diseinatzea, finkaturiko helburuak betetzekoerabilitako hezkuntzan esku hartzeko estrategiak aipatuz, ikuspegi inklusibotik begiratuta betiere.
- IE3.M. Berariazko arretarako zerbitzuen hezkuntza esku-hartzea eta horiek oinarri dituzten sareak aztertzea.
- IE4.M. Prestakuntza plan justifikatua prestatzea faseetako bakoitzean.

### 5.2. GIHak lortzeko Iraunkortasunaren arloko gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza emaitzak:

#### 1. Maila. Jakin

- G3.HO.1.1. Iraunkortasunarekiko partaidetza eta konpromisoa sustatzen duten hezkuntza-proiektu, -programa eta -sare komunitarioak ezagutzen ditu. (G1.M, G2.M, G3.M, G4.M)
- G3.HO.1.2. Iraunkortasun-proiektu batean parte hartzen duten subjektuen lankidetzak eta lankidetzak sustatzeko teknikak eta tresnak ezagutzen ditu. (G1.M, G3.M, G4.M)

#### 2. Maila. Jakin nola

- G1.HO.2.1. Iraunkortasunaren dimentsioei buruzko gogoeta kritikoa egiten du bere lanbide-eremuarekin lotutako egoera baten azterketan. (G1.M)
- G1.HO.2.2. Gizarte- eta ingurumen-arazoaren konplexutasuna eta horien konponbideak ulertzen eta aztertzen ditu (nekazaritza iraunkorra, berdintasun-politikak, lan duina, energia-eraginkortasuna eta -nahikotasuna, ekonomia iraunkorra, gobernantza parte-hartzailea...). (G1.M, G5.M)

- G2.HO.2.1. Badaki kritikoki baloratzen hezkuntza-jarduerak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eragin negatiboak. (G1.M, G2.M, G3.M, G5.M)
- G2.HO.2.2. Planteatutako arazo baten aurrean, badaki hainbat hezkuntza-proposamen aztertzen eta ebaluatzen eta jasangarriena erabakitzen. (G2.M, G3.M, G4.M, G5.M)

### 3. maila. Erakutsi + egin.

- G1.HO.3.1. Bere ikuspegi profesionaletik, badaki iraunkortasun-arazoak azaltzen (ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak), eta arazo horiei aurre egiteko metodoak eta estrategiak proposatzen, toki- eta mundu-mailan. (G1.M, G2.M, G4.M, G5.M)
- G2.HO.3.1. Bere lanbide-eremuan proiektu eta jarduera iraunkorrak proposatzeko gai da, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-alderdiak kontuan hartuta. (G2.M, G3.M, G4.M, G5.M)
- G2.HO.3.3. Gai da bere lanbide-eremuko proiektu batean ideia eta irtenbide berriak emateko, jasangarriagoa izan dadin (adibidez, ekitate, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.). (G2.M, G3.M, G4.M, G5.M)
- G4.HO.3.2. GIHak sustatzeko hezkuntzan esku hartzeko proposamenak diseinatu, planifikatu, inplementatu eta ebaluatu ditzake (kalitatezko hezkuntza, genero-berdintasuna, kontsumo iraunkorra...). (G2.M, G3.M, G4.M, G5.M)

## 6. Irakaskuntza koordinazioa

Modulu honetako irakasle arduradunen arteko koordinazioak ziurtatuko du gai bakoitzaren barne koherentzia. Gai desberdinek DILAN dute egiteko komun gisa, eta beharreko integrazio bideak jarriko dira horretarako hala plangintza egiteko fasean nola jarraipenean eta ebaluazioan.

Elkarlana bultzatuko da, horri esker lortuko baita, koherentzia ziurtatzeaz gainera, ikasleen hazkunde profesionala eragitea elkartruke profesionalaren bidez.

Prestakuntza jardueretan maisu klaseak, mintegiak eta ikasgelako praktikak egingo dira, lan autonomoa nahiz taldekakoa orekatu eta bultzatu ahal izateko.

Proposamen praktikoak, arazoak lantzea eta kasuen azterketak irakasgaietan, prestakuntza estrategia baliagarriak izango dira moduluaren gaitasunak lortzeko.

Ikasleen eskubidea dira tutoretzak eta horiek laguntza handia eskainiko diete ikaskuntzan, eta baita banakako nahiz taldekako egokitzapenean ere.

## **7. Irakasgaiak DILANari egiten dizkioten ekarpenak**

### ***7.1.- Diagnostika Hezkuntzan***

Irakasgai honekin lagundu egin nahi dugu diagnostiko prozesua egiteko gaitasunak garatzen, hainbat eredu, esparru eta arlo kontuan harturik eta metodologia etateknika propioak erabiliz. DILAN lanean diagnostiko prozesu osoa planteatu beharko dute ikasleek, beharren azterketarekin hasiz eta hezkuntzaren testuinguruan esku hartze bat proposatzearekin bukatuz.

### ***7.2.- Ezintasuna eta inklusioa***

Ikuspegi inklusiboa erakutsi nahi du irakasgaiaren diseinuak, pertsona guztiek duten giza taldeetan sartzeko eta egoteko nahiz gizarte erakunde guztietan ahalik eta oztopo gutxien izateko eskubidean oinarriturik betiere, herritar guztientzat, ezintasun bat dutenak barne, bizi-kalitatearen euskarri onak izan daitezzen.

DILAN lanari dagokionez, espazio inklusiboetan guztion beharrei erantzungo dien programak eraikitzen saiatuko gara, eta urritasunari dagokionez, gure testuinguruan erantzun instituzional espezifikoak emango dituzten proiektuak sortzen.

### ***7.3.- Taldean Esku Hartzeko Estrategiak***

“Irakasgai honetan talde dinamikaren fenomenoak ikasiko dugu ikaskuntza prozesu formaletan nahiz ez formaletan. Taldeen egiturak eta antolakuntza aztertuko ditugu, eta baita hezkuntza testuinguruan dituzten prozesuak eta garapena ere. DILAN lanean, irakasgai honen bidez aztertuko dugu DILAN taldearen dinamika bera, lan taldearen kudeaketa funtzionalerako tresnak prestatu eta inplementatuz”.

### ***7.4.- Prestatzaileen prestakuntza***

Testuinguruan kokaturiko prestakuntza prozesuak diseinatzeko kontuan hartu beharreko elementuen inguruan egingo dugu ikerketa irakasgai honetan, azterketa eta hausnarketa eginez, eta prozesu horien ikuspegiaren, prestakuntzak oinarri dituen ereduak eta egon daitezkeen prestakuntza estrategien artean koherentzia bilatuz.

DILANi dagokionean, irakasgai honek formazio izaera dituzten esku-hartze pedagogikoetan lagunduko du eta, halaber esku-hartze pedagogiko guztietan oinarrian dagoen prestakuntza prozesua ikertzen eta deskribatzen lagunduko du.

### **7.5.- Esku hartzeko ereduak**

Esku hartzeko era desberdinen ezagutzarekin loturiko gaitasunak jorratu nahi ditu Esku hartzeko Ereduak irakasgaiak. Hauxe da, esku hartzeko eredu ezaugarriak azaldu nahi ditu, nola esku hartzen dugun eta zergatik esku hartzen dugun galderari erantzunez. Horretarako, eredu bakoitzaren ikuspegi teorikoak ulertzeko irakurketa egingo da lehenengo. DILANean gogoeta egingo da eredu bakoitzarekin lotutako esku-hartze moduen eta esku-hartzea diseinatzeko prozesuan zehar hartutako erabakibakoitzak dituen ezaugarrien inguruan. Helburu nagusia da ekintzaren plangintzan arrazoi justifikatuz jabetzea eta inplikaturiko pertsonengan izango dituzten prestakuntza eraginez ohartzea.

### **7.6.- Euskararen arauak eta erabilerak (Hautazkoa)**

Irakasgai honek hainbat baliabide jarriko ditu ikasleen esku dagokien jardun-eremuan eredu zuzen eta egokia erabiltzeko gai izan daitezen. Alde horretatik, Moduluko Diziplinarreko Lanak idazten ari diren bitartean aholkularitza emango zaie ikasleei, hautazko irakasgaietan landu dituzten edukiak modu egokian aplikatu dituzten eta sortzen duten lanak hizkuntza-eredu zuzen eta egokiaren eskakizunak bete dituzten.

Halaber, DILAN amaitu ondoren ahozko aurkezpena entzun eta gomendioak egingo dira ahozko estandarra ere zuzena eta egokia izan dadin.



## 8. Moduluko diziplinarteko lana (DILAN)

### 8.1 Zereginaren planteamendua

**Honako erronkan oinarritzen da:**

“GIHen ikuspuntutik argudiatu eta defendatu daitekeen gizarte eta hezkuntza esku-hartze pedagogiko bat taldean diseinatzea”.

**Honako egoera honi erantzuten dio:**

Joan den ikasturtean, hainbat ikastegitan inplementaturiko zenbait proiektu ezagutu zenituzten DILAN lanaren bidez (IV. Modulua). Zuen sormena suspertu nahi dugu orain eta erronka bat jarri nahi dizuegu, zuen konpromiso eta kezketan oinarrituriko esku-hartze pedagogikorako proiektua eraiki behar duzue, benetako beharrei erantzungo diena norbere eta gizarte ongizatea hobetzeko. Era berean, esku-hartzea GIHeekin lotutako irizpideetan oinarrituko da (ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).

### 8.2 Zereginaren garapenerako lan prozedura

DILAN garatzeko sekuentzia ondoren jasotzen dugu. Zuen esku-hartze pedagogikoa diseinatzen laguntzeko eta taldearen prestakuntza prozesua, ondorengo 1 taulan fase terminoetan urratsak jasotzen dira.

ESKU-HARTZE PEDAGOGIKOA			
Asteak	Faseak	Eginkizunak	Entregagaiak
1-3	<p>Fasea I: Hasiera</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekipoa eta bere konpromisoak: Ekipoen eraketa eta artikulazioa (lan taldearen fitxa. Ikusi eranskina)</li> <li>• Gaiaren hurbilketa /esku hartzea gaia (GIHeKin erlazionatuta).</li> <li>• Ekipoa eta bere formakuntza prozesua: taldeko egunkari erreflexiboa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <u>Taldeko koaderno</u> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nortzuk osatuko dugun taldea eta bakoitzak hartzen dituen konpromisoak erabaki (lan taldearen fitxa)</li> <li>• Esku-hartzearen kronograma (lan taldearen fitxa)</li> <li>• Taldearen egunkari erreflexiboa (fasea I) idatzi, orrialde 1.</li> </ul> </li> <li>✓ <u>Esku-hartze pedagogikoa</u> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Esku-hartzearen gaia erabaki eta bere bideragarritasuna azaldu gaia (GIHeKin erlazionatuta).</li> <li>• Egin behar-analisi bat: motibazio pertsonal eta sozialak (Eskaria)</li> <li>• Gaiari buruzko 4-6 erreferentzi bibliografikoak hautatu.</li> <li>• 2 orri</li> </ul> </li> </ul>	<p><b>1 Entregagaia: Ekipoa eta esku-hartzea</b> 4-5 kide</p> <p><b>Entrega-data:</b> 3. Astean. Asteazkenean.(2024ko, irailak 25an). Moduluko Koordinatzaileari. Tutoreen esleipena.</p>
4-7	<p>Fasea II: Literaturaren berrikusketa, eta beharren azterketa eta erabaki-hartzea</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Errebisio bibliografikoa (testuinguru espezifiko) esku-hartze posiblei buruz</li> <li>• Testuingurua mugatu eta beharrak jaso</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <u>Esku-hartze pedagogikoa</u> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Literaturaren berrikusketa</li> <li>• Esku hartze pedagogiko baterako erabakiak zehaztu eta justifikatu</li> <li>• Esku hartzeak zein beharrari erantzuten dio</li> <li>• Justifikazio teorikoa idatzi, 5 orri</li> </ul> </li> <li>✓ <u>Taldeko koaderno</u> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldearen egunkari erreflexiboa (fasea II) idatzi, orrialde 1</li> <li>• Taldearen egunkari erreflexiboa (fasea I) zuzenketak gehitu</li> </ul> </li> </ul>	<p><b>2 Entregagaia: Esku-hartzearen fundamentazio teorikoa</b></p> <p><b>Entrega-data:</b> 7. Astean. Asteazkenean (2024ko, urriak 23ean). Tutoreari entregatu</p>

7-11	<p>Fasea III: Esku-hartze pedagogikoaren diseinua</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Esku hartze testuingurua</li> <li>• Helburuak</li> <li>• GIHein erlazioa.</li> <li>• Metodologia, interbentziorako egingo diren akzioak, erabiliko diren errekurtsoak</li> <li>• Ebaluazioa...</li> </ul>	<p>✓ <u>Esku-hartze pedagogikoa</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Esku hartzea gauzatuko den testuingurua</li> <li>• Helburuak idatzi</li> <li>• GIHein eduki espezifikoekiko lotura deskribatzea.</li> <li>• Esku hartzearen metodologia azaldu</li> <li>• Ebaluazio prozesua zehaztu</li> <li>• Esku-hartzearen diseinua idatzi, 8 orri</li> <li>• Aurreko entregagaietako zuzenketak jaso</li> </ul> <p>✓ <u>Taldeko koaderno</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldearen egunkari erreflexiboa (fasea III) idatzi, orrialde 1</li> <li>• Taldearen egunkari erreflexiboa (fasea II) zuzenketak gehitu</li> </ul>	<p><b>3 Entregagaia: Esku-hartzearen diseinua</b></p> <p><b>Entrega-data:</b> 11. Astean. Asteazkenean. (2024ko azaroak 20an)</p> <p>Tutoreari entregatu</p>
------	--	--	--

12-13	<p>Fasea IV: Azkeneko Txostenaren zirriborroa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mugak</li> <li>• Zirriborroaren entrega, atal guztiak eginak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <u>Esku-hartze pedagogikoa</u> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Interbentzioak izan dezakeen mugak aztertu</li> <li>• Hobekuntzak planteatu</li> <li>• Azkeneko txostenaren zirriborroaren idazketa, 20 orri gehienez</li> <li>• Aurreko entregagaietako zuzenketak jaso</li> </ul> </li> <li>✓ <u>Taldeko koaderno</u> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldearen egunkari erreflexiboa (fasea IV) idatzi, orrialde 1</li> <li>• Taldearen egunkari erreflexiboa (fasea III) zuzenketak gehitu</li> </ul> </li> </ul>	<p><b>4 Entregagaia: Behin behineko txostena</b></p> <p><b>Entrega-data:</b> 13. Astean. Asteazkenean. (2024eko abenduak 4ean)</p> <p>Tutoreari entregatu</p>
14	<p>Fasea V: Esku-hartze diseinuaren aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurkezpenaren egitura eta antolakuntza</li> <li>• Adierazitako edukiaren egokitzapena</li> <li>• Komunikazio gaitasunak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Tutorearekin aurkezpena errebisatu</li> <li>✓ Esku-hartzearen aurkezpen publikoa</li> <li>✓ Aurkezpenetik eratorritako galderak erantzun beharra</li> <li>✓ Aipatutako puntuei jaso eginez lana estutu</li> </ul>	<p><b>Aurkezpen publikoa</b></p> <p>14. Astea</p> <p>Irakasle batzuen eta ikasle guztien aurrean</p>
15	<p>Fasea VI: Amaierako txosten idatziaren lanketa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Azkeneko txostenaren egitura eta antolakuntza</li> <li>• Jasotako informazioa lanean egokitu</li> <li>• Zitazioaren eta erredakzioaren aspektu formalak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <u>Esku-hartze pedagogikoa</u> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Esku-hartze pedagogiko diseinuaren txosten idatzia egin</li> <li>• Aurkezpen publikoan aipatutako hobekuntzak kontuan hartu eta proposatutako aldaketak egin</li> <li>• Esku-hartze proposamenaren azkeneko txostena entregatu</li> </ul> </li> <li>✓ <u>Taldeko koaderno</u> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan taldearen balorazio orokorra idatzi</li> <li>• Taldearen egunkari erreflexiboaren fase guztien zuzenketak gehitu</li> </ul> </li> </ul>	<p><b>Azkeneko Txostena. Esku-hartze pedagogikoa eta Lan taldeko koaderno</b></p> <p>15. Astea</p> <p>Tutoreari entregatu</p>

Taula 1: Faseak, zereginak eta esku-hartze pedagogiko diseinuaren entregagaien datak. AIM-aren garapenerako prozedura

### 8.3 Txostenaren egitura

Txostenaren atalak:

- Azala (lanaren izenburua, ekipoaren kideak, tutorearen izen-abizenak, ikasturtea...)
- Aurkibidea (atal bakoitzaren orrialdeak zehaztuz)
- Esku-hartze pedagogikoaren txostenaren gorputza (15-20 orri):

#### 1) Sarrera

- Esku hartzearen laburpen sintetikoa. Esku-hartzeak erantzuten duen motibazio eta beharrei.
- Ekipoaren motibazioa eta justifikazioa esku-hartzea gauzatzeko.

#### 2) Oinarri teorikoak eta beharren detekzioa.

- Esku-hartzea zentzuz eta sistematikoki heltzeko informazio iturrien bilaketa eta aukeraketa.
- Beharrak detektatu eta identifikatu: Literatura zientifikoaren bidez eta, kasuen edo egoeraren arabera, tekniken eraikuntza eta aplikazioa errealitatetik informazioa jasotzeko.
- Identifikatutako beharren lehentasuna eta hipotesi irtenbideak.

#### 3) Esku hartze proposamena

- Zein erakunde testuingurutan kokatua dagoen
- Esku hartzearen diseinua
  - Helburu orokorrak
  - Erlazioa GIHeKin
  - 3 saioen garapen zehatza
    - i. Deskribapena
    - ii. Helburu zehatzak
    - iii. Ekintzen sekuentzia
    - iv. Ebaluazioa

#### 4) Ondorioak eta esku-hartzearen ekarpenak

#### 5) Mugak eta hobekuntza proposamenak

#### 6) Bibliografia

#### 7) Eranskinak

- Lan-taldeko koadernoaren txostenaren gorputza (5-7 orrialde):

- I. Lan taldearen fitxa
- II. Taldearen egunkari erreflexiboa entregagai bakoitzeko
- III. Lan taldearen balorazio orokorra

### 8.4 Bertaratze saioak (**DERRIGORREZKOA BERTARATZEA**): Egutegia

Itzaleztatutako egunetan irakasgai bakoitzeko saio praktikoa DILAN lanerako izango da (taula 2).

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1 Astea				<b>Esku hartzeko ertuak DILAN AURKEZPENA</b>	Taldeetan esku-hartzeko estrategiak
2 Astea		Prestatzaileen prestakuntza	Diagnosia Hezkuntzan		
3 Astea 1. Entregagaia	Ezintasuna eta inklusioa				Taldeetan esku-hartzeko estrategiak
4 Astea			Diagnosia Hezkuntzan		Taldeetan esku-hartzeko estrategiak
5 Astea	Ezintasuna eta inklusioa	Prestatzaileen prestakuntza	Diagnosia Hezkuntzan		
6 Astea			Diagnosia Hezkuntzan		Taldeetan esku-hartzeko estrategiak
7 Astea 2. Entregagaia	Ezintasuna eta inklusioa			<b>Esku hartzeko ertuak</b>	
8 Astea		Prestatzaileen prestakuntza		<b>Esku hartzeko ertuak</b>	
9 Astea			Diagnosia Hezkuntzan		Taldeetan esku-hartzeko estrategiak
10 Astea	Ezintasuna eta inklusioa	Prestatzaileen prestakuntza		<b>Esku hartzeko ertuak</b>	
11 Astea 3. Entregagaia		Prestatzaileen prestakuntza	Diagnosia Hezkuntzan	<b>Esku hartzeko ertuak</b>	
12 Astea	Ezintasuna eta inklusioa				Taldeetan esku-hartzeko estrategiak
13 Astea 4. Entregagaia	Ezintasuna eta inklusioa				
14 Astea Aurkezpenak		Prestatzaileen prestakuntza		<b>Esku hartzeko ertuak DILAN AURKEZPENAK</b>	
15 Astea Azken txostena					

Taula 2: Ikasgai bakoitzean DILAN saioak

## 9. Ordu eta kreditu kopurua

- DILANaren balioa %20
- 1,2 kreditu gai bakoitzeko
- 12 ordu eskola lanetarako gai bakoitzeko
- 60 ordu guztira eskola lanetarako
- 18 ordu eskolaz kanpoko lanetarako gai bakoitzeko
- 90 ordu eskolaz kanpoko lanetarako guztira
- kalkulu hauek egiteko ez da hautazko gaia kontuan izan.

## 10.- Ebaluazio sistema

Irakasgai bakoitzaren %20 hartuko du (2 puntu) DILAN lanak. DILAN lanean 3,5eko (0,75/2) kalifikazioa lortu beharko da gutxienez irakasgaietako bakoitza gainditzeko.

### 10.1 Ebaluazio irizpideak

#### Ahozko aurkezpena (%25)

Lanaren aurkezpenean edukia nahiz forma ebaluatuko dira.

#### EDUKIA

- Ikasketa, zientzia eta lanbide alorretako kode etikoa errespetatuko da.
- Egindako lanetik, mezu nagusiak aukeratuko dira erakutsi ahal izateko.
- Landutako gaiarekin loturik konpondu beharreko gatazkarekin eta lanaren egileek jasotako ekarpen edo ikaskuntza esplizituekin loturik egongo dira azalpen nagusiaren edukiak.
- Lana egiteko orduan gainditutako kontzeptu edo prozedura eragozpenak azalduko dira halaber.

#### FORMA

- Komunikazioaren eraginkortasuna baloratuko da, aurkezpena egin den bitartean taldeak/ikasgelak sorturiko giroaren arabera.
- Denbora mugak errespetatuko dira (hasiera eta amaiera)
- Kontuan hartuko da diskurtso-komunikazio gaitasunetan erakutsitako eraginkortasuna: ahozko mintzaira eta ahozkoa ez den adierazpena.
- Euskarriak menperatzea (IKTak, prestaturiko materialak eta abar).
- Aurkezpenaren euskarrien prestatze maila.

**Txosten idatzia. Esku-hartze pedagogikoaren eta taldeko koadernoaren txosten idatzia (%75)****EDUKIA**

- Irakaskuntza, zientzia eta lanbide alorretako kode etikoa errespetatuko da.
- Egokitasuna eta originaltasuna: Edukia originala izango da; erabat eta modu koherentean erantzun behar dio eginiko planteamenduari.
- Gaiaren arabera izango da bibliografia berrikuspena. Zientzia kalitatearen baldintzak bete behar dituzte iturriek eta behar bezala erreferentziatuta aurkeztu behar dira (APA).
- Autoretatik hartutako ideiak testuan noren hitzak diren aipatu egin behar dira. Hitzez hitz hartzen baditugu ideiak, kaxotxen artean ipiniko ditugu eta egoki erreferentziatuko dira (APA araudia jarraituz).
- Informazioa antolatzea. Landutako gidoiaren bloke bakoitzari erantzungo diote ereduak, eta modu koherentean aurkeztuko dira, hartutako erabakien arrazoiak justifikatuz betiere.
- Ondorioek beharreko argitasunez erakutsiko dute gogoeta maila, eta bildutako datuetan eta informazioan oinarrituak izango dira.

**FORMA**

- Emandako gidoiaren arabera (8.3 txostenaren egitura) aurkeztuko da lana eta jarritako egunean entregatu beharko da.
- Unibertsitatean eska daitekeenaren mailakoak izango dira idatziaren zuzentasuna eta adierazpidea, bai alderdi formalari dagokionez (ortografia, sintaxia, aipuak, bibliografia-erreferentziak...) bai erabilitako adierazpide idatziaren kohesioari eta koherentziari dagokienez.
- Birziklatze aukerak kontuan hartuko dira euskarriaren erabileran. Bi aldeetatik erabilitako orrialdeek osatuko dute dokumentua, eta ez da uztai-koadernaketarik erabiliko. Papera ez den beste euskarri batean aurkeztu ahal izango dira eranskinak.
- Orientazio gisa ondorengo aholkuak ematen ditugu:
  - Txostenak ez ditu 20 orri baino gehiago izan behar (eranskinak aparte).
  - Irakurtzeko letra erraza erabili (Times New Roman, Verdana, Calibri, Arial ...). Mota bakarra testu guztian zehar.
  - Iturriaren tamaina 12. Atalen izenburuetarako tamaina handiagoa edo txikiagoa erabili (14) eta oin-oharretarako (10).
  - Txosteneko orriek "goiburu" deitutako atala eramango dute (atal bakoitzarentzako ezberdina: Sarrera, Testuingurua eta oinarri teorikoak ...) eta oin-oharrak (orrialdearen zenbakia).
  - Taulak eta irudiak egoki zenbakituak, oinean deskribatuak eta testuan erreferentzia.



## 10.2 Kalifikazio Sistema

### DILAN LANAREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK

\*Moduluko lana ebaluazio jarraian oinarritzen da

1 Entregagaia: Ekipoa eta esku-hartze gaia	1	2	3	4	5
a) Aipatutako datan entregatu da b) Taldea osatzen duten kideak ondo identifikatuta agertzen dira c) Lanaren errealizazioari begira hartutako konpromisoak agertzen dira, adostu izan direnak d) Gai bat proposatu da e) Bere bideragarritasuna aztertu da f) Fase honetako taldearen egunkari erreflexiboa entregatu da					
2 Entregagaia: Fundamentazio teorikoa	1	2	3	4	5
a) Aipatutako datan entregatu da b) Gaiaren bibliografia zehaztu da c) Gaia eta esku-hartzearen beharrak detektatu dira eta lehentasuna eman zaie d) Fundamentazio teorikoa era argian idatzi da esku-hartzea aukeratutako gaiaren gainean garatzeko e) Erreferentzi bibliografikoak zuzen idatzi dira f) Fase honetako taldearen egunkari erreflexiboa entregatu da					
3 Entregagaia: Esku-hartze pedagogikoaren diseinua	1	2	3	4	5
a) Aipatutako datan entregatu da b) Esku-hartzea testuinguruan jarri da c) Esku-hartzea GIHen ikuspegitik argudiatu da d) Proposatutako esku-hartzea era garbian eta zehazki garatu da e) Esku-hartze pedagogikoan aurkitu behar diren oinarritzko elementuak zuzen garatu dira f) Ebaluazio sistema zehaztu da g) Fase honetako taldearen egunkari erreflexiboa entregatu da					
4 Entregagaia: Azkeneko txostenaren berradorea	1	2	3	4	5
a) Aipatutako datan entregatu da b) Esku-hartzeak izan ditzakeen mugak planteatu dira c) Hobekuntza proposamenak jaso dira d) Azkeneko txostena egin da lanean aipatu behar ziren puntu guztiekin e) Fase honetako taldearen egunkari erreflexiboa entregatu da					
5. Azkeneko Txostena	1	2	3	4	5
a) Aipatutako datan entregatu da b) Azkeneko lana entregatu da proposatutako hobekuntzekin eta aldaketekin c) Taldeko koadernoak entregatu da, bertan lan taldearen fitxa, taldearen egunkari errelexiboak entregagai					

bakoitzeko eta lan taldearen balorazio orokorra					
<b>6. Garapena. Lan Prozesua</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
a) Taldeak tutorearekin adostutako akordioak garatu ditu					
b) Taldeak zalantzak aipatu ditu eta hartutako konpromisoak bete ditu					
c) Taldeak etengabeko konpromisoa mantendu du DILANaren garapenarekin					

### KLASEKO AURKEZPENEN EBALUAZIO IRIZPIDEAK

	Erabat desados 1	Desados 2	Indiferentea 3	Ados 4	Erabat ados 5
1. Taldeak/ikasgelak sorturiko giroa aproposa izan da					
2. Denbora mugak errespetatu dira (hasiera eta amaiera)					
3. Ahozko mintzaira eta ahozkoa ez den adierazpena eraginkorrak eta aproposak izan dira					
4. Lanaren azalpenerako materialak prestatu dira, IKTak erabili dira, eta abar.					
5. Aurkezpenaren euskarrien prestatze maila aproposa izan da					
6. Lanaren helburua era eraginkorrean transmititu da					
7. Taldeko partaide guztiak parte hartu izan dute					
8. Taldeko partaideak ondo jasan dute epaimailetik eratorritako iruzkinak eta erantzun aproposak eman dituzte					
9. Beste iruzkinak					


**11. OHARRA**  
**DILANA NOIZ EGIN BEHAR DEN ETA NOIZ EZ.**

Zeintzuk egin behar duten DILANa eta zeintzuk ez (taula 3):

MATRIKULATUTAKO IRAKASGAIK	EBALUAZIO JARRAIKO IRAKASGAIK	EBALUAZIO EZ JARRAIKO IRAKASGAIK	DILANa BAI/EZ
5	5	0	BAI
5	4	1	BAI
5	3	2	BAI
5	2	3	EZ
5	1	4	EZ
5	0	5	EZ
4	4	0	BAI
4	3	1	BAI
4	2	2	BAI
4	1	3	EZ
4	0	4	EZ
3	3	0	BAI
3	2	1	BAI
3	1	2	BAI
3	0	3	EZ
2	2	0	EZ
2	1	1	EZ
2	0	2	EZ
1	1	0	EZ
1	0	1	EZ

Taula 3: Zeintzuk egin behar duten DILANa.

ERANSKINAK



Diziplinarteko Lana. Modulu 5

Lan-taldearen fitxa

Lan-taldearen izena: .....

Taldekideak:

- 1- Izen obizenak: .....  
e-maila: .....  
Telefonoa: .....
- 2- Izen obizenak: .....  
e-maila: .....  
Telefonoa: .....
- 3- Izen obizenak: .....  
e-maila: .....  
Telefonoa: .....
- 4- Izen obizenak: .....  
e-maila: .....  
Telefonoa: .....

Taldearen inguruko informazioa:



Lan-taldearen antolatzea eta funtzionamendurako hitzamenak:

• Hartu diren konpromisoak:

• Taldearen lan dinamika ondorengo izango da:

KRONOGRAMA

Artek	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
1					
2					
3					1 Entregagaitza
4					
5					
6					
7					2 Entregagaitza
8					
9					
10					
11					3 Entregagaitza
12					
13					4 Entregagaitza
14					Aurkezpenak
15					Azkeneko txostena